# Sinboloen eta hitzen artean
# Entre símbolos y palabras

UPV/EHUko Uda Ikastaroek 40 urte
40 años de Cursos de Verano de la UPV/EHU

**CIP. Biblioteca Universitaria**

**Sinboloen** eta hitzen artean : UPV/EHUko Uda Ikastaroek 40 urte = Entre símbolos y palabras : 40 años de Cursos de Verano de la UPV/EHU / [dirección editorial, Leire Fernández Iñurritegi, Eduardo Herrera Fernández]. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2021. - 171 p., il. col. ; 24 x 26 cm.

Texto en euskara y español

D.L.: BI 01336-2021. – ISBN: 978-84-1319-353-3.

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cursos de Verano. 2. Carteles. 3. Ilustraciones, imágenes, etc. - Interpretación I. Fernández Iñurritegui, Leire, dir. II. Herrera Fernández, Eduardo, dir.

378(460.15)

7.01

© edizioa
© de la edición
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, UPV/EHU, 2021

© Eduardo Chillidaren lanak
© de las obras de Eduardo Chillida
Zabalaga Leku. Bilbao, VEGAP, 2021.
Cortesía de la Sucesión Eduardo Chillida y Hauser & Wirth

© argazkiak
© de las fotografías
Jesús Uriarte (pp. 30, 34, 41)
Postigo (p. 46)

© irudiak
© de las imágenes
Beren egileak
Sus autores/as

Argitaratze-zuzendaritza
Dirección editorial
Leire Fernández Iñurritegi
Eduardo Herrera Fernández

Diseinua eta maketazioa
Diseño y maquetación
Leire Fernández Iñurritegi
Eduardo Herrera Fernández

Lege gordailua
Depósito legal
LG BI 01336-2021

ISBN
978-84-1319-353-3

UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

40
URTE / AÑOS / YEARS

# Sinboloen eta hitzen artean
# Entre símbolos y palabras

## UPV/EHUko Uda Ikastaroek 40 urte
## 40 años de Cursos de Verano de la UPV/EHU

Aurkibidea

# Índice


UPV/EHUko
Uda Ikastaroek
40 urte
40 años de
Cursos de Verano
de la UPV/EHU

08

Itziar Alkorta
Rafael Pardo
Eneko Goia
Markel Olano
Jokin Bildarratz
Eva Ferreira

Hitzak
eta sinboloak
aurrera jarraitzeko
Palabras
y símbolos
para seguir adelante

28

Leire Fernández
Eduardo Herrera

Chillidaren
sinbolo bat
Uda Ikastaroentzat
Un símbolo de
Chillida para los
Cursos de Verano

32

40 urte,
40 hitz
40 años,
40 palabras

54

Hitzak eta sinbolo
grafikoak horman
Palabras y símbolos
gráficos en la pared

138

# UPV/EHUko Uda Ikastaroek 40 urte
# 40 años de Cursos de Verano de la UPV/EHU



Itziar Alkorta

UPV/EHUko Uda Ikastaroetako zuzendaria
Directora de los Cursos de Verano de la UPV/EHU

Uda Ikastaroen berrogeigarren urteurrena ospatzeko liburu eder bat egin nahi izan dugu, irakurleak oraintxe esku artean duena, gure historia kontatzeaz gain, begiei atsegina eman eta eskuekin ukitzeko gogoa pizten duena. Liburuki hau burutan hartu genuenean, objektu fisikoari berari erreparatzeko moduko zerbait nahi genuen; izan ere, gure ingurunea birtualizatu ahala, mundu fisikoko objektuek, eskuekin uki daitezkeenek, zentzu berri bat hartzen baitute. Eduardo Chillidak zioenez, eskuak elementu bereziak dira, espazioa atzemateko ahaleginean itxi eta ireki egiten direnak. Espazio hori Uda Ikastaroen edizio bakoitzaren ezaugarri diren eta gure ibilbidean zehar gidatu gaituzten berrogei hitzek zedarritzen dute. Lan honen egileek, Eduardo Herrerak eta Leire Fernandezek, gure esan nahia ezin hobe interpretatzen jakin dute, guretzat objektu eder bat sortuz, artista donostiarraren obran inspiratua, zeinaren jeinua lagun izan baitugu lau hamarkadatako ibilbide luze honetan.

1999an, Chillidak Uda Ikastaroen logotipoa sortu zuenean, Ikastaroak errotuta eta herritarrei erabat irekita zeuden dagoeneko. Izan ere, UPV/EHUk hasieratik babestu nahi izan zuen jakintzak hedatzeko asmo handiko proiektu hau, gizartearen eta unibertsitate sortu berriaren arteko loturak estutzea bilatzen zuena. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren bultzada irmoa izan zuen, eta berehala batu zitzaien BBVA Fundazioa. Ikastaroen sendotze etapan izandako beste mugarri garrantzitsu bat 1990ean EHUk eta Miramar Jauregia Partzuergoak sinaturiko hitzarmena izan zen. Horren bidez, eraikin enblematikoa ikastaroen egoitza iraunkor bihurtu zen.

Mende aldaketaren ondoren, Uda Ikastaroen ekimenak eta irismena biderkatu egin ziren, eta gainerako euskal hiriburuetara zabaldu ziren, haietan egiten ziren udako ekimenak sortu berri zen Uda Ikastaroen Fundazioaren baitan bilduta. Datu erakusgarri bat ematearren, 2014an, ikastaroak 8.577 parte hartzaile izatera iritsi ziren, baita berrehunetik gora kolaboratzaileko sare zabala ere; besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, zeinaren bidez Fundazioak

Para celebrar nuestro cuadragésimo aniversario hemos querido hacer un libro bello como el que el lector, la lectora tiene ahora entre sus manos, que, además de contar nuestra historia, regale la vista y estimule el tacto. Las manos, decía Eduardo Chillida, son elementos vivos que se cierran y se abren en un intento de aprehender el espacio. Jalonan dicho espacio las cuarenta palabras que caracterizan cada una de nuestras ediciones, para guiarnos a través de la trayectoria de los Cursos de Verano. Una idea que nos inspiró a la hora de encargar este libro, ya que a medida que se virtualiza nuestro entorno, los objetos del mundo físico, los que se pueden tocar con las manos, parecen dotados de un nuevo sentido. Los autores de esta obra, Eduardo Herrera y Leire Fernandez, han sabido interpretar nuestro deseo creando para nosotros un objeto bello, inspirado en la obra de Eduardo Chillida, cuyo genio nos ha acompañado a lo largo de esta larga trayectoria.

En 1999, cuando Chillida creó el logotipo de los Cursos de Verano de la UPV/EHU, el arraigo de los Cursos y su apertura a la ciudadanía eran ya una realidad. Tras su modesto nacimiento en una época convulsa para la sociedad vasca, los Cursos cobraron pronto un gran relieve. No en vano la Universidad quiso impulsar desde el principio un ambicioso proyecto de extensión universitaria que estrechara los lazos de la sociedad con su recién creada universidad. Para ello contó con el decidido apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, del Gobierno Vasco y del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián a los que enseguida se sumó la Fundación BBVA. Este apoyo institucional que se ha mantenido incólume a lo largo del tiempo, sumado al ímpetu de su director Ricardo Echepare, que dotó de personalidad propia a un proyecto inspirado en otros modelos cercanos, han sido factores decisivos en la consolidación de la institución. Otro hito importante en la etapa de consolidación de los Cursos fue la firma en 1990 de un acuerdo entre la UPV/EHU y el Consorcio Palacio Miramar, por el cual el emblemático edificio se convertía en sede permanente de los Cursos.

Una vez rebasado el cambio de siglo, se multiplicaron las iniciativas y el alcance de los Cursos, que se ampliaron al resto de las

etengabeko prestakuntza eskaintzen baitie hezkuntzako profesionalei; baita Osakidetza ere, osasun arloko profesionalei zuzendutako ikastaroak antolatzen dituena; eta Irizar eta Diario Vasco erakunde pribatuak. Horiei guztiei esker daude Uda Ikastaroak publiko zabalari irekita. Gaur egun, Uda Ikastaroen egoitzak gizartearen eta unibertsitatearen arteko topaleku bihurtu dira, baina baita kultura eta politika munduko pertsona ospetsuen topaleku ere, eta horien parte hartzeak iritzi truke lasaia eta ideien eztabaida ezaugarri dituen agora publikoaren berezko bizitasuna sortzen du. Berrogei urte geroago, urteroko hitzorduak hamahiru mila laguni baino gehiagori egiten die dei, eta bost kontinenteetara iristen da, pandemiak utzitako ondareari zor diogun plataforma birtualaren garapen bikainari esker. Munduan gertatzen den guztiari adi, Uda Ikastaro hedatuak etorkizunerantz proiektatzen dira, familia handi honetako kide izan nahi duen orori eztabaida, berritasuna eta hurbiltasuna eskaintzen jarraitzeko.

Gure historia markatzen duten mugarriak nire aurrekoek, Ricardo Echepare, José Luis de la Cuesta eta Carmen Agoues zuzendariek eta haien talde bikainek egindako lan onari esker lortu ziren; izan ere, aurretik egindakoaren gainean eraikitzen jarraitu zuten beti, eta, horrela, azkar eta etenik gabe, maila berrietara iristea lortu zuten. Baina gure erakundeak ezaugarri berezirik badu, hura osatzen duten pertsonak dira: Karmele Aranburu, Angelines Arribas, Lourdes Balzola, Asier Camba, Cristina Castro, Aintzane Gereñu, Elisabet Peñagarikano, Ainhoa Urbieta, Idoia Villalabeitia, Marian Zabalegi eta Aitziber Zubillaga, administrari nagusia, besteak beste, beren zerbitzu bokazioari, profesionaltasunari eta adeitasunari esker Uda Ikastaroen espiritua gorpuzten baitute. Balio dezala liburu honek UPV/EHUren Uda Ikastaroetan parte hartu duten guztiak aintzatesteko eta zorioneko urteurren hau ospatzeko.

capitales vascas, integrando bajo la recién creada Fundación Cursos de Verano, otras iniciativas estivales existentes en las mismas. En 2014, los Cursos habían alcanzado ya los 8577 participantes y se contaba con una amplia red de más de doscientos colaboradores, entre los que destacan el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, mediante el que la Fundación ofrece formación continua a los profesionales de la educación; también *Osakidetza*, que organiza cursos dirigidos a los profesionales de la salud; o entidades privadas como Irizar o el Diario Vasco, entre otras, gracias a las cuales los Cursos se abren al gran público. A día de hoy las sedes de los Cursos de Verano se han convertido en lugar de encuentro de la sociedad con su universidad, pero también con personalidades del mundo cultural y político cuya asiduidad genera la efervescencia propia del ágora pública, caracterizada por el intercambio sereno de opiniones y el debate de ideas. Cuarenta años después de su creación, la cita anual convoca a más de trece mil asistentes y llegan a los cinco continentes gracias al extraordinario desarrollo de su plataforma virtual, que ha sido un legado virtuoso de la pandemia. Atentos a todo lo que sucede en el mundo, los Cursos de Verano extendidos se proyectan hacia el futuro para seguir ofreciendo debate, novedad y cercanía a todo el que quiera formar parte de esta gran familia.

Los hitos referidos que jalonan nuestra historia se consiguieron gracias al buen hacer de mis predecesores, los directores Ricardo Echepare, José Luis de la Cuesta y Carmen Agoues y de sus magníficos equipos, que construyeron siempre lo previamente edificado, alcanzando así rápidamente y sin solución de continuidad, nuevas cotas. Pero si algo caracteriza a nuestra institución son las personas: Karmele Aranburu, Angelines Arribas, Lourdes Balzola, Asier Camba, Cristina Castro, Aintzane Gereñu, Elisabet Peñagarikano, Ainhoa Urbieta, Idoia Villalabeitia, Marian Zabalegi y Aitziber Zubillaga, la administradora general, entre otras, que, desde su vocación de servicio, su profesionalidad y su amabilidad encarnan el espíritu de los Cursos de Verano. Sirva pues, este libro para reconocer a todos los que han contribuido a los Cursos de Verano de la UPV/EHU y conmemorar este feliz aniversario.

## Rafael Pardo



BBVA Fundazioko zuzendaria
Director de la Fundación BBVA

BBVA Fundazioak EHUren Udako Ikastaroekin duen elkartasunak hiru hamarkada baino gehiago bete ditu dagoeneko. Horrelako aliantza batek, esplorazio-izaera hutseko lankidetza puntual batek ez bezala, finantza-baliabideak eta arreta jarduera horretara eta ez bestera bideratzeko kostuaren justifikazioa eskatzen du, beste aukera batzuk egon badaudenean. Hargatik, argitalpen berezi hau aukera bikaina da guretzat, urtero, ikastaroen inaugurazio ekitaldian, modu zatikatuan, adierazten duguna (berriz) azaltzeko.

Lankidetza azaltzeko, lehenik eta behin, uste osoa dugu «ikastaroen» jarduera ez dela bazterrekoa edo baztertzekoa unibertsitate-erakundearen funtzio-sorta konplexuan, baizik eta haren funtsezko elementua dela, eta haren garrantzia haziz joango dela datozen urteetan. Bestalde, UPV/EHUrekin bakarrik dugu lankidetza mota hau, BBVA Taldeak Euskadin dituelako sustraiak, baina, batez ere, Euskal Herriko Unibertsitateko bertako irakasle eta ikertzaileek egiten dituzten ikastaroak direlako, modu organikoan, beren ekosistemarekin ondoen txertatzen diren ikastaroak eginez, bestek, unibertsitatearen unibertsoari bizkarra emanda, egin ohi duten «ospetsuen pasarela» («celebrities») sindromeari gailenduz.

Gaur egun, inork ez du eztabaidatzen unibertsitatea erakunde zentrala denik, XXI. mendearen ezagutzari dagokionez ekonomia intentsiboei eusten diena, norbanakoaren eta taldearen ongizateari erantzuten diona, ekologiaren, kontserbazioaren eta klima-aldaketaren biologiaren eremuetako mugaren ezagutzak gidatutako ingurumenarekiko elkarrekintzari erreparatzen diona. Era berean, esan gabe doa lanbideen bilakaeran eragin erabakigarria duen erakundea dela, lanbideak izanik gizarte bakoitzari bere profila eta aukeramultzoa egituratzen eta eskaintzen diotenak.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, eredu instituzional bat ezarri zen, unibertsitatearen oinarrizko zeregin gisara ezagutza sortzea eta transmititzea aldarrikatzen zuena, kanpoko beharrei erantzun gabe («blue sky research» gisa etiketatu zena). Ezagutza aplikatua sortzea bigarren mai-

La asociación ininterrumpida de la Fundación BBVA con los Cursos de Verano de la UPV ha superado ya las tres décadas. Una alianza de este tipo, frente a una colaboración puntual de carácter meramente exploratorio, necesita y descansa en una justificación del coste de oportunidad de dedicar recursos financieros y atención precisamente a esa actividad cuando hay otras posibles. Esta publicación especial es una excelente ocasión para (re)explicitar lo que, de manera fragmentaria, manifestamos cada año en actos como la ceremonia inaugural de los cursos.

La colaboración se explica, en primer lugar, por el convencimiento de que la actividad de los «cursos», lejos de ser algo marginal o prescindible en el complejo abanico de funciones de la institución universitaria, representa un elemento esencial de la misma, cuya importancia seguirá creciendo en los próximos años. Ocurre de manera exclusiva con la UPV porque en Euskadi tiene sus raíces el Grupo BBVA, pero sobre todo porque son los cursos que de manera más acabada extienden lo que es y hace el personal docente e investigador de la propia Universidad del País Vasco, los cursos que mejor se insertan de manera orgánica, no postiza, con su ecosistema, sobreponiéndose al prevalente síndrome «pasarela de famosos» («celebrities») de espaldas al universo de la universidad.

Nadie discute hoy que la universidad es una institución central sostenedora de las economías intensivas en conocimiento del siglo XXI, del bienestar individual y colectivo, de una interacción con el medio ambiente guiada por el conocimiento de frontera de los campos de la ecología y la biología de la conservación y el cambio climático. Es también un supuesto no necesitado de escrutinio que es la institución que influye de manera decisiva en el modelado de las profesiones, que, a su vez, son las que vertebran y dan su perfil y horizonte de posibilidades a cada sociedad.

Desde mediados del siglo XX se impuso un modelo institucional que postulaba como núcleo constitutivo de la universidad la creación y transmisión de conocimiento básico, no orientado expresamente por necesidades externas (lo que se etiquetó

lako ataza kontsideratzen zen, igurikipen eta eskaera ekonomiko, sozial eta militarren aurrean askatasun-maila handiago edo txikiagoz erantzuten zitzaiolarik. Bigarren Mundu Gerrako esperientzia dramatikoak modu adierazgarrian erakutsi zuen totalitarismoaren hedapenari aurre egiteko tresna eta irtenbide berriak behar zirela, paradoxikoki oinarrizko zientzia sortzen zuten ikertzaileen komunitatetik zetozenak, ez teknologoetatik. Ongizatea eta oinarrizko ezagutza uztartzen zituen garaiko espiritu hori Vannevar Bushen –Estatu Batuetan basakeriari gerra irabazteko ahalegin zientifikoaren buru izan zen zientzialari eta ingeniaria– «The Science, the Endless Frontier» dokumentuan islatu zen. Bi hamarkada geroago, unibertsitatearen misioari herrialde bakoitzeko «berrikuntza-sistema nazional» delakoaren eragile nagusi izateko zeregina gehitu zitzaion, unibertsitatea enpresarekin eta hazkunde- eta lehiakortasun-politika publikoekin lotzen zuena. Komunitate zientifikoari kanpotik eta askatasun-maila gutxirekin ezarritako helburuak, lehentasun sozialetatik zetozen, eta, bereziki, lehentasun ekonomikoetatik, defentsa-behar ohikoez gain. Politika zientifikoek, ekonomikoek edo industrialek ez ezik, hazkundearen, berrikuntzaren eta lehiakortasunaren bultzadan jarri zuten arreta, batez ere Europan eta Japonian, baina oro har arrakasta apalekoak izan ziren ahalegin horiek, espero ziren emaitzetatik urrun, eta ez ziren nahikoak izan eredua hobeto berrikusteko edo zehazteko ere. Unibertsitateak ikertzaile belaunaldi berriak eta goi-mailako lanbideak formatu behar zituen. Ortegak *Unibertsitatearen Misioan* nabarmendutako funtzioak, kultura, ideiak eta balioak «garaien mailan» sortu eta transmititzeak, –Ortegaren kasuan, elite meritokratikoetara mugatuta, sozialetara baino gehiago–, alegia, ez zuen oihartzunik izan, eta, gainera, oker ulertu zen unibertsitate-erakundeak kulturari egindako ekarpen hori humanitateetatik eta arteetatik eratorri behar zela.

Unibertsitate-erakundeari buruzko matrize edo ikuspegi horretan, udako ikastaroetan egiten diren bezalako jarduerak, goi-mailako irakaskuntzako eta ikerketako edozein erakunderen funtzio kardinal baten garapen normal eta organikoaren emaitza bezala baino gehiago, bazterreko zeregin bezala bakarrik sor zitezkeen, unibertsitateko kudeatzaile eta irakasle gutxi batzuen sentsibilitate eta intuizioaren kariaz gauzatuak. Liburu honetan jasotako Udako Ikastaroen historia instituzionalak ondo adierazten du Udako Ikastaroen eraketa gorabeheratsua, abiatzea eta sendotzea, hasieran egoitza aldakorrekin, baliabide apalekin, misio konbentzionaletik urrunago joaten ausartu ziren errektoretza

como «blue sky research») y, secundariamente, conocimiento aplicado, con más o menos grados de libertad respecto a las expectativas y demandas económicas, sociales y militares. La dramática experiencia de la Segunda Guerra Mundial mostró elocuentemente que para hacer frente a la expansión del totalitarismo se precisaba de nuevas herramientas y soluciones, que paradójicamente emanaban sobre todo de la comunidad de investigadores dedicados a generar ciencia básica, no de los tecnólogos. Ese espíritu de la época que asociaba bienestar y conocimiento básico quedó plasmado en el documento de Vannevar Bush -el científico e ingeniero que lideró en Estados Unidos el esfuerzo científico para ganar la guerra a la barbarie-, «The Science, the Endless Frontier». Dos décadas más tarde se añadió a la misión de la universidad en cada país la faceta de ser agente central de lo que se etiquetó como «sistema nacional de innovación», que enlazaba la universidad con la empresa y con las políticas públicas de crecimiento y competitividad. Los objetivos externos puestos a la comunidad científica, por implicación, emanaban, con pocos grados de libertad, de las prioridades sociales y, especialmente, las económicas, además de las permanentes de defensa. Las políticas científicas, no sólo las económicas o industriales, pusieron el foco en el impulso del crecimiento, la innovación y la competitividad, especialmente en Europa y en Japón, con éxito por lo general modesto, unos resultados distantes de los esperados que no fueron suficientes para revisar o especificar mejor el modelo. La universidad debía formar a las nuevas generaciones de investigadores y a las llamadas profesiones superiores. La función enfatizada por Ortega en Misión de la Universidad, la creación y transmisión de cultura, de ideas y valores «a la altura de los tiempos», -en el caso de Ortega circunscrita a las elites meritocráticas, más que sociales- mereció solo atención débil y discontinua, entendiéndose erróneamente, además, que esta contribución de la institución universitaria a la cultura debía emanar de las humanidades y las artes.

En esa matriz o visión acerca de la institución universitaria, actividades como las que se desarrollan en los cursos de verano solo podían surgir en los márgenes, más fruto de la sensibilidad e intuición de unos pocos gestores y docentes universitarios que ser resultado del desarrollo normal y orgánico de una función cardinal de cualquier institución de enseñanza superior e investigación merecedora de este nombre. La historia institucional de los Cursos de Verano recogida en este libro documenta de manera bien expresiva la azarosa constitución, el despegue final y la consolidación de los Cursos de Verano, al principio con sedes prestadas y cambiantes, recursos modes-

«ilustratuek» gidatutako irakasle-ikertzaile talde txiki baten intuizioak eta ilusioak bultzaturik.

Joan den mendeko azken hamabost urteek ikuspegi-aldaketa esanguratsu bati ateak ireki zizkioten. Argitalpen zientifikoez, patenteez, enpresa edo administrazioei aholkularitza emateaz eta profesionalen kohorte berrien prestakuntzaz gain –gure artean pizgarri gisa eta curriculumak eraikitzeko kontuan hartutako elementu konbentzionalak guztiak–, beste zerbait behar zela uste zen: gizarteari ezagutza transmititzea, publiko interesatuari (edo publiko interesatuei, zeren eta, interes entziklopedikoa duten gizabanakoen eredu ilustratuaren parean, errealitateak erakutsi zuen ikasgeletan ez ezik «kalean» ere, arlo eta gai batzuk besteak baino interes handiagoa pizten zutela). Mobilizatzea eta jakintza «itzultzea» zen helburua, akademiako hormetan bildutako ezagutza publikoari hurbiltzea; zailtasunez betetako zeregina, komunikazioaren egintzatik bertatik hasita. Norberaren diziplinako lankideei «hitz egiteko» formatu eta arau formalizatuetatik diziplinarteko edo diziplina-anitzeko ereduak entseatzera pasatuz, publikoaren «engagement» delakoa lortzeko modu berriak eta, horren guztiaren ondorioz, ikasgelatik kanpoko ezagutzaz jabetzea transmititzea helburu.

Jende multzoak duen ezagutza gizarte bateko «aktibo ukiezinen» artean kokatu zuten ekonomialariek, horrek jokabidean –lanetik kontsumora–, eta lehentasunetan duen eragina azpimarratuz. Psikologo sozialek ezagutzaren –eta ezagutzari bizkar ematen dioten estereotipoen– rola erakutsi zuten, jokabide sozial desiragarri eta ez desiragarri askotan. Osasun-psikologoek eta osasun publikoko beste espezialista batzuek agerian utzi zuten, gizarte-inguruabarrez gain, sinesmenek (barneratutako ezagutzek) eragindako jokabide-ereduek edo bizimoduek, gizabanako baten osasun-egoeraren zati handi bat azaltzen zutela. Politologoek joan den mendeko lehen hamarkadetatik aztertu izan dute ideologiek zer eginkizun duten mugimendu populisten garapenean eta demokrazia liberalaren erakundeen higaduran eta eraso totalitarioan. Geroago, kultura politiko edo zibiko bat eraikitzeko eta mantentzeko erronka itzelaz arduratu ziren, ezagutza zientifiko-sozialarekin bateragarria eta bizitza kolektiboari laguntzeko eta erakundeen arkitektura politikoaren funtzionamendu egokia zuzentzeko baliagarria izango zena.

Baina, segur aski, «zientzia-kultura» deritzona izan da arreta handiena eskaini zaion publikoarentzako ezagutza-arloa, eta, horren arabera, kontzeptu eta lege zientifikoekin eta ezagutza horiek eskuratzeko, baliozkotzeko eta berrikusteko moduarekin (zientziaren «metodikoa») eta, oraintsuko

tos, compensados por la intuición y la ilusión de un reducido grupo de docentes-investigadores apoyados o liderados por rectorados «ilustrados», que se atrevieron a ir más lejos de la misión convencional.

Los últimos quince años del pasado siglo abrieron la puerta a un cambio significativo de enfoque. Además de las publicaciones científicas, las patentes, el asesoramiento a empresas o administraciones y la formación de las nuevas cohortes de profesionales -los elementos convencionales tenidos en cuenta entre nosotros a modo de incentivos y construcción de curriculum- tomó fuerza la idea de que se precisaba algo más: la transmisión de conocimiento a la sociedad, al público interesado (o a los públicos interesados, porque frente al supuesto de matriz ilustrada de individuos con interés enciclopédico, la modesta realidad instruyó pronto que no solo entre los universitarios, en las aulas, sino también «en la calle», hay selección, foco de concentración y preferencias por determinados objetos o áreas). Se trataba de movilizar y «traducir», acercar el conocimiento atesorado en las paredes de la academia al público, una tarea plagada de dificultades, empezando por el acto mismo de la comunicación. Pasando del formato y reglas formalizadas para «hablar» a los pares de la propia disciplina a ensayar focos inter o pluridisciplinares, nuevas formas para conseguir el «engagement» del público y, como resultado de todo ello, transmitir la apropiación del conocimiento fuera del aula.

Los economistas incluyeron la familiaridad del público con el conocimiento en el grupo de los «activos intangibles» de una sociedad, influenciando numerosas facetas de la conducta, desde el trabajo al consumo, influyendo también en las preferencias. Los psicólogos sociales mostraron el papel del conocimiento -y los estereotipos de espaldas al mismo- en un amplio abanico de conductas sociales, deseables e indeseables. Los psicólogos de la salud y otros especialistas en salud pública evidenciaron que además de las circunstancias sociales, las pautas de conducta o estilos de vida, influidos a su vez por las creencias (los conocimientos interiorizados) explicaban gran parte de la variabilidad en el estado de salud de un individuo o de una población. Los politólogos habían venido estudiando desde las primeras décadas del siglo pasado el papel de las ideologías en el desarrollo de movimientos populistas y en la erosión y el asalto totalitario a las instituciones de la democracia liberal. Más tarde, se ocuparon, hasta el presente, del reto formidable de construir y mantener una cultura política o cívica compatible con el mejor conocimiento científico-social, como elemento coadyuvante a la vida colectiva y un adecuado funcionamiento de la arquitectura político institucional.

aldian, zientziaren erakundeekin beraiekin oinarrizko harremanak dituztela adierazten da. Helduen artean oinarrizko nozioen ulermen-maila txikiak, baita bigarren mailako ikasketak burutu dituen azpimultzoaren artean ere, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman gabezia handiak agertzeaz gain, ikerketa-zentroek eta unibertsitateek «alfabetizazio zientifikoko» («scientific literacy») programak abiaraztea ekarri zuen, eta kasu askotan Europako Batzordeak eta zenbait gobernu eta sozietate zientifikok bultzatutako ekimenak abian jarri zituzten. Gero eta ahalegin handiagoa egiten ari da, hainbat formatu eta esparru entseatuz (zientzia-museoetatik eta planetarioetatik hasita, kafe zientifikoetara, hitzaldi-zikloetara, unibertsitateko laborategiko edo saileko hormetatik kanpoko espazio instituzionaletara, blogetara eta sare sozialetara, bai eta komunikabideetako zientzia-ataletara ere heltzen direnak). Ingurumen-problematikaren kariaz, bereziki biodibertsitatearen galera bizkorra eta klima-aldaketa direla eta, kultura zientifiko orokorraren ezagutza zabaldu egin da edo, gutxienez, zehaztu egin da, ingurumen-zientzietan arreta jarriz, funtsezkoak baitira giza jardueraren ondorioz Lurrean hautsitako orekak berrezartzen saiatzeko eska daitezkeen bizimodu-aldaketak onartzeko eta aktibatzeko.

«Sarearen» garapenak –World Wide Web delakoak– eta sare sozialen eztandak denbora tarte oso laburrean inbertitu dituzte gizarteak ezagutzarekin, informazioarekin eta iritzien hedapenarekin dituen harremanak. Informazio-eskasia egoera batetik –gizarte-segmentu hezienarentzat ere, informazioa eskuratzeko aukera oso mugatua, ia beti bitartekarien bidez, formatu diskretu eta disimilarretan eta gehienentzat gehiegizko prezioekin–, testuinguru berri batera igaro gara: printzipioz guztientzat eskuragarri dauden ezagutza-gordailu erraldoiak, etengabe hedatzen ari direnak, testu-konbergentzia eta audioa eta bideo-fusioa eskaintzen dituztenak. Horrela, eremu publikoan informazio-ugaritasun eta gainkarga handiko egoera bat sortu da, non baliozkotutako ezagutza eta oinarririk gabeko iritzi hutsa bereiztea erronka handia baita; alta, erronka horri eraginkortasunez heltzea garrantzia handikoa da, hauteskunde-prozesuetatik hasita, erakunde kolektiboen funtzionamenduan eragina baitu informazio andana egoera horrek. Komunikabide konbentzionalek, adituen eta publikoaren artean, eta, oro har, eliteen (sozialak eta intelektualak) eta publikoaren artean, agregatzaile eta bitartekari gisa funtzionatzen zutenek, beren eraginaren zati handi bat galdu dute, beren «negozio-eredua» eta biziraupen ekonomikoa arriskuan jartzeraino.

Pero seguramente el área del conocimiento del público a la que se ha prestado mayor atención es la conocida como «cultura científica», denotando la familiaridad básica con conceptos y leyes científicas y con el modo de adquirir, validar y revisar esos conocimientos (la «metódica» de la ciencia) y, en el periodo más reciente, las propias instituciones de la ciencia. El alarmante bajo nivel de comprensión de nociones elementales entre la población adulta, incluso entre el subconjunto que ha completado estudios secundarios, además de mostrar serias deficiencias en el sistema educativo no-universitario, espoleó programas de «alfabetización científica» («scientific literacy») por parte de centros de investigación y universidades, contando en bastantes casos con iniciativas impulsadas por la Comisión Europea y algunos gobiernos y sociedades científicas. Un esfuerzo creciente que llega a la actualidad, ensayando formatos y marcos varios (desde los museos de ciencia y los planetarios a los cafés científicos y los ciclos de conferencias en espacios institucionales fuera de las paredes del laboratorio o departamento universitario, los blogs y las redes sociales, además de las discontinuas secciones de ciencia de los medios de comunicación). Conforme la problemática medioambiental, en particular la pérdida acelerada de biodiversidad y, más recientemente, el cambio climático, la mejora de la cultura científica general se ha visto ampliada o, al menos, especificada, poniendo el foco en las ciencias del medio ambiente, fundamentales para aceptar y activar los cambios en el modo de vida exigibles para tratar de restaurar los equilibrios rotos en el Planeta Tierra como resultado de la actividad humana.

El desarrollo de la «red» -la omnipresente World Wide Web- y la explosión de las redes sociales han invertido en un cortísimo intervalo temporal las relaciones de la sociedad con el conocimiento, la información y la difusión de opiniones. Se ha pasado de una situación caracterizada por la penuria de información, con acceso a la misma muy restringido incluso para el segmento más educado, casi siempre a través de intermediarios, en formatos discretos y disimilares y con precios prohibitivos para la mayoría, a un contexto en el que gigantescos depósitos de conocimiento, en expansión permanente, son, en principio, accesibles para todos, con convergencia y fusión de texto, audio y video. Se ha generado así una situación de sobreabundancia y sobrecarga informativa en el espacio público, en la que distinguir conocimiento validado y mera opinión no fundamentada, cuando no bulos interesados, representan hoy un reto monumental, de cuyo eficaz abordaje depende incluso el funcionamiento de las instituciones colectivas, empezando por los procesos electorales. Los medios de comunicación convencionales, que funcionaban como agregadores e intermediarios entre los expertos y el público y, más en general, entre las élites (sociales e intelectuales) y el público han perdido gran parte de su influencia y visto comprometida su «modelo de negocio» y subsistencia económica. En conjunción con otros cambios sociopolíticos, estos desarrollos tecno-sociales han dado forma a las manifestaciones emparentadasde las «fake news», la «postverdad» (niveladora del conocimiento objetivado y reproducible con la opinión subjetiva no sujeta a contraste alguno y en la que los valores envuelven y modelan los hechos o los datos) y el «bullshit» (la charlatanería desbocada). El centro de gravedad del conocimiento sigue estando para la mayoría de la población de las sociedades avanzadas en la academia, en la universidad y las instituciones científicas periuniversitarias, las que gozan de mayor confianza en el doble sentido de «trust» y «confidence», de atender a los intereses de todos -no a los de parte- y hacerlo con la mayor competencia o solvencia. Pero, en la sombra, a veces con el concurso de los medios de comunicación, ha despegado toda una industria de la postverdad y el «bullshit». Frente a los análisis y perspectivas del investigador, que no es más que representante legitimado del consenso cognitivo en la respectiva comunidad científica, se ofrecen las opiniones de autodenominados «gurus», especialistas en todo sin haber producido nunca un análisis acotado de algo específico, que, con frecuencia, alcanzan mucha mayor proyección pública que el hombre o mujer, investigador solvente y «acreditado».



Beste aldaketa soziopolitiko batzuekin batera, garapen tekno-sozial horiek bide eman diete «fake news»ei eta haren ahaideei, hau da, «egiaren ostekoari» (ezagutza objektibatua eta erreproduzitzeko modukoa, inolako kontrasterik gabeko iritzi subjektiboarekin parekotzen duena, zeinean balioek modelatzen baitituzte gertaerak eta datuak), eta «bullshit» (ahozabalkeria) delakoari. Gizarte aurreratuetako biztanle gehienentzat, ezagutzaren erdigunea oraindik ere akademian, unibertsitatean eta unibertsitatez kanpoko erakunde zientifikoetan dago, konfiantza, «trust» eta «confidence» zentzu bietan, sortzen duten erakundeak direlako, guztien interesei –ez alderdikoei soilik– gaitasunez erantzuteko gai direlakoan. Baina, itzalean, komunikabideen laguntzarekin batzuetan, egia-ostekoaren eta «bullshit» aren industria oso bat sortu da. Ikertzailearen, alegia, komunitate zientifikoan adostasun kognitiboaren ordezkari legitimatuaren, analisi eta ikuspegien aurrean, «guru» deiturikoen iritziak eskaintzen dira, zeinak espezialista baitira denetan, eta inoiz berariazko azterketa sakonik egin gabe, askotan, gizon edo emakumea ikertzaile fidagarri eta «egiaztatuek» baino proiekzio publiko handiagoa lortzen baitute.

Batzuetan, egiaren moldaketa, hustasun eta deformazio horiek kaltegabeak izaten dira –hala nola horoskopoen denbora-pasaren kasua–, baina, beste askotan, sakoneko ondorio larriak eragiten dituzte, esate baterako: ebidentzian oinarritutako medikuntzari uko egitearen ondorioz Covid-19-aren aurkako txertoei uko egitea, kasurako (izan ere, herri batzuetan olde horri aurre egiteko nahitaezko txertaketa ezarri behar izan dute pertsona guztien osasuna babesteko), edo iritzi publikoa hauteskundeetako intoxikaziotik babesteko neurriak hartu behar izatea, edo negazionismo interesatua, aldaketa klimatiko antropogenikoa ukatzen duenari aurre egin behar izatea.

Paradoxikoa da, hala ere, teoria eta eredu zientifikoen garapen zabala ezaugarri duen garaian, non zientzia eta ezagutza etengabe hedatzen ari baitira bizitza sozialaren, eta ia bizitza osoaren, atmosfera kognitibo gisa, aldi berean arrazionaltasunari eta egiari eraso egitea, gure bilakaera sozialaren funtsezko printzipio hori ukatuz edo gutxietsiz; Aristotelesek dotoreki formulatu zuen printzipioa «dena badela eta ez dena ez dela esatea da egia; dena ez dela eta ez dena badela esatea da gezurra» zapuztuz.

Aukera zabalak eta mehatxu sakonak dituen bitariko testuinguru horretan, Udako Ikastaroek sistematikoki betetzen duten funtzioak erabateko garrantzia hartzen du. Hain

En ocasiones los bulos, vaciedades y deformaciones de la verdad son relativamente inocuas, como el pasatiempo de los horóscopos, pero por lo general acarrean consecuencias indeseables de calado, como el rechazo a la medicina basada en la evidencia -el ejemplo de las vacunas anti-Covid-19 son un caso relevante en algunas sociedades, obligadas a imponer la vacunación obligatoria para preservar la salud de todos- o la intoxicación de la opinión pública en procesos electorales y, por supuesto, el negacionismo interesado y, en todo caso, ignorante del fenómeno del cambio climático antropogénico.

No deja de ser paradójico que en un período como el del presente caracterizado por una envolvente gigantesca de teorías y modelos científicos, en expansión permanente, casi como una atmosfera cognitiva de la vida social e indirectamente de la vida toda, sin adjetivos, al tiempo se esté asistiendo a un asalto a la racionalidad y a la verdad, a la negación o minusvaloración de ese principio esencial en el que se ha apoyado nuestra evolución social y que Aristóteles formulara elegantemente: «decir

zuzen ere, mikro-erakunde horren, hots, udako ikastaroen, espezializazio funtzionala, unibertsitatearen «barnealdeko» ezagutzarik onena zabaldu eta mugiaraztea da; ezagutza hori gizartera eta aldi bakoitzeko arazo eta erronketara, modu malgu eta erakargarrian hurbiltzeko. Beste ekimen asko daude publiko interesatuari ezagutza helarazteko, baina gutxi, Udako Ikastaroak bezain antolatuak eta eraginkorrak, hain eremu zabalekoak (non unibertsitatearen «know what» eta «know how» direlakoak, administrazioaren, enpresen eta komunikabideen arloekin osatzen baitira), adintarte zabalari zuzendutakoak, talde profesional eraginkorrek kudeatuak eta sinesgarritasun handiko komunikazioko agente zorrotzen bitartez hedatuak. Egia esan, gaur egungo erronkak kontuan hartuta, inertzia instituzionalak bakarrik azaldu dezake uda ikastaroen jarduera unibertsitate-sare publiko osora orokortu ez izana, ikasturte osoan zehar ikastaroak eskainiz, eta unibertsitate publikoarengandik espero daitezkeen funtzioen zorroan balio handiko jarduera bezala aitortuz. UPV/EHUren Udako Ikastaroetan jorratutako gaiak errepasatze hutsak erakusten du eskaintzaren garrantzia eta zentzua. Pandemiaren esperientziak, ziurrenik, ikastaroetako hitzaldi, elkarrizketa, topagune, blog, elkartze eta abarrak formatu digital batera ekartzea eramango du, betiere ongi etorriak direlarik edukiak fidagarri izaten jarraitzen badute eta baliabideak hiritar guztien eskura jartzen badira; horrela, gizarte osoarentzat eskuragarri dauden ezagutzaren «aktibo ukiezinen» stock-a are gehiago aberastuko da.

Udako Ikastaroak urte osoko jarduera iraunkor gisa zabaltzeko egiten dugun apustuaren lehen oinarria aipatutakoa bada –baliozkotutako eta mugako ezagutza mobilizatzeko funtzio sozialaren gaurkotasuna eta garrantzia–, UPV/EHUren ikastaroetan apustua egitearen zioa ere argia da, unibertsitate honek irismen handiko eta diferentzialeko tradizio sendoa eraikitzen jakin baitu, urte gutxiren buruan talde batek besteari lekukoa pasatuz, jasotako herentziaren berrikuntzak eta alderdi onenak errespetatuz. Tradizioaren eta berrikuntzaren ezohiko uztardura horretan datza ikastaroen arrakasta eta hazkundea. Maila pertsonalean, plazer handia izan da zuzendari talde bikainekin elkarlanean aritzea: Ricardo Echepare, José Luis de la Cuesta, Carmen Agües eta, etapa berrienean, Itziar Alkortarekin. Profesional bikainek lagundutako zuzendariak izan dira, eta neurri batean gureak ere izan direla pentsatzen dudalako, beti gogoratuko ditut. Euskal erakundeek babes jarraitua eta bateratzailea eman diete Uda Ikastaroei, ekonomikoa eta sinbolikoa ere bai. Euskadiko beste enpresa eta erakunde garrantzitsu batzuek ere parte hartzen dute, ikastaroen ingurune soziala indartuz. Etapa bakoitzeko errektoretza-taldea buru-belarri aritu izan da ikastaroei laguntzen, unibertsitatearen zereginaren funtsezko osagaia direla jakitun. Eta, last but not least, UPV/EHUko bertako irakasleek, Espainiako eta nazioarteko beste unibertsitate batzuetakoekin batera, urtez urte funtsezko ekarpena zabalduz eta indartuz joan dira. Zalantzarik gabe, indar eta eragin horien guztien ondorioz, UPV/EHUko Ikastaroak ez dira sinesgarritasunik gabeko «guru-pasarela», baizik eta egunero, lan-mahaian, laborategian, enpresan edo administrazio-sailean, konfiantza merezi duen ezagutza berria sortzen eta aplikatzen duten gizon-emakumeena, koordenatu-sistema balidatu bati eutsiz, beti errebisiopean dagoena, egiari asintotikoki irekia baina egia inoiz ukitzen ez duena, Karl Popper-en hitz dotoreak erabiliz. Egiaren eta ezagutzaren etengabeko berrikuspena gizarte ireki baten funtsezko osagaiak direla transmitituz.

Ziur nago BBVA Fundazioak UPV/EHUrekin aliantza berezi hori egiten jarraituko duela datozen urteetan, berezko zentzu kontzeptuala izanik, beste inolako lankidetzak ez bezala funtzionatzen baitu.

Coda. Nire desirarik onenak jaio berria den EHUko Udako Ikastaroen Iraunkortasun Foroarentzat. Programa berri oso garrantzitsua da, Ikastaroetan eremu garrantzitsu horri buruz egiten zena modu esanguratsuan jasotzen eta zabaltzen duena, zeinari forma ematen laguntzeko aukera izan baitut Itziar Alkorta irakaslearekin etengabeko elkarrizketan –pandemia aurretik hasi genuena Bilboko kafetegi batean–, bere «take off» aren garaian, eta garai hartako errektorearen, Nekane Balluerkaren, bultzada sendoa izan zuena, zeinak gaur Eva Ferreira errektore berriaren jarraikortasuna baitu.

que lo que es es y que lo que no es no es, es lo verdadero; decir que lo que no es es y que es no es, es lo falso».

En este contexto dual, de oportunidades inmensas y de amenazas de calado, la función que de manera sistemática desempeñan los Cursos de Verano adquiere una importancia radical. Precisamente la especialización funcional de esta micro-institución que son los cursos de verano es la de desempaquetar y movilizar el mejor conocimiento atesorado «intramuros» de la universidad para acercarlo de forma flexible y atractiva a la sociedad, a los problemas y expectativas en cada período. Hay otras muchas iniciativas para proyectar conocimiento al público interesado, pero pocas, como los Cursos de Verano, tan organizadas y eficaces, de radio tan amplio en las cuestiones abordadas, dirigidas a un amplísimo intervalo de edades, modeladas y gestionadas por potentes equipos profesionales y con protagonistas de la comunicación cuyas credenciales están contrastadas (complementando el «know what» y el «know how» de la universidad con los propios de ámbitos como los de la empresa, la administración y los medios). En realidad, habida cuenta de los retos del presente solo la inercia institucional explica que esta actividad no se haya generalizado a todo el tejido universitario público, extendido temporalmente a lo largo del curso académico y asignado un alto nivel de ponderación en la cartera de funciones esperables y exigibles de la universidad pública. Un mero repaso a las cuestiones abordadas por los Cursos de Verano de la UPV muestra la relevancia y sentido del grueso de la oferta. La experiencia de la pandemia seguramente acelerara la constitución de un repertorio digital de conferencias, diálogos, encuentros, blogs, asociados o derivados de los cursos de verano cuyo contenido sea un recurso confiable y en expansión al acceso de la ciudadanía, enriqueciendo así el stock de «activos intangibles» del conocimiento disponibles gratuitamente para la entera sociedad.

Si el primer fundamento de nuestra apuesta por los Cursos de Verano como actividad permanente es el acabado de esbozar -la actualidad y trascendencia de la función social de movilización del conocimiento validado y de frontera-, el hacerlo con la UPV responde a que esta universidad ha sabido construir una tradición de gran solvencia y diferencial en el modelado de los cursos, pasándose el testigo cada pocos años entre equipos al frente de los cursos, respetando lo mejor de la herencia recibida al tiempo que innovando. En ese inusual mix de tradición e innovación descansa el éxito y el crecimiento de los Cursos. En un plano personal ha sido un verdadero placer colaborar con un excepcional elenco de directores: Ricardo Echepare, José Luis de la Cuesta, Carmen Agües y, en la etapa más reciente, Itziar Alkorta, apoyados por equipos de excelentes profesionales, que consideramos en algún sentido también nuestros y a los que siempre recordaré. Las instituciones vascas han dado un respaldo continuado y convergente a los ursos, financiero y también simbólico. Otras destacadas empresas y organizaciones de Euskadi participan también reforzando la envolvente social de soporte de los cursos. El equipo rectoral de cada etapa se ha volcado con los Cursos, consciente de que es componente esencial de la misión de la universidad. Y, last but not least, el profesorado de la propia UPV, ampliado con el de otras universidades españolas e internacionales, ha sumado año a año su contribución fundamental a los resultados. Definitivamente, como resultado de todas esas fuerzas e influencias, los Cursos de la UPV no son un espacio «pasarela» de gurús sin credenciales, sino de hombres y mujeres que diariamente, en la mesa de trabajo, el laboratorio, la empresa o el departamento de la administración generan y aplican nuevo conocimiento merecedor de confianza, aportando un sistema de coordenadas validado y, al tiempo, abierto siempre a revisión, acercándose asintóticamente a la verdad, pero sin tocarla nunca, para decirlo con la elegante formulación de Karl Popper. Transmitiendo las ideas de que verdad y revisión permanente del conocimiento son componentes esenciales de una sociedad abierta.

Estoy seguro de que la Fundación BBVA proseguirá en los próximos años esta singular alianza con la UPV, que además de tener sentido conceptual funciona como ninguna otra colaboración.

Coda. Mis mejores deseos para el recién nacido Foro de Sostenibilidad de los Cursos de Verano de la UPV, un muy relevante nuevo programa que recoge y amplia significativamente lo que se venía haciendo en los Cursos a propósito de ese ámbito crucial como pocos, al que he tenido el privilegio de contribuir a dar forma en diálogo constante -iniciado informalmente, antes de la pandemia, en la terraza de una cafetería en Bilbao- con la profesora Itziar Alkorta y que en su «take off» contó con el apoyo decidido de la entonces Rectora de la UPV, Nekane Balluerka y que continua hoy con el de la Rectora Eva Ferreira.

## Eneko Goia

Donostiako Alkatea
Alcalde de Donostia-San Sebastián

Udako Ikastaroek Donostian 40 urte betetzeak aukera paregabea eskaintzen digu azken urte hauetan gure hiriak izan duen bilakaera handiaz jabetzeko. Gaur, Donostia «ezagutzaren hiria» dela aldarrikatzen dugu harrotasunez, eta hori hala bada, Udako Ikastaroei esker ere bada.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1981. urtean Udako Ikastaroak antolatu zitezen egin zuen proposamena. Proposamen hura ez zen hausnarketarik gabeko ideia bat izan. Proposamen hura, aurreko urteetan gure hirian unibertsitate ikasketak bultzatzeko egindako apustuaren jarraipena izan zen. Hainbat dira Euskal Herriko Unibertsitatea gure hirian kokatzeko eta garatzeko apustua egin zuten pertsonak. Garbi zeukaten zein izan behar zuen euskal erakundeak berreskuratzearekin batera egin beharreko apustua. Horiei guztiei bihoakie gaurkoan gure aitortza. Haien ikuspegi aurreratuak egin zuen posible gure hiriaren eraldaketa. Gaur Donostia Unibertsitate Hiria da, eta donostiarrak izan gara horren onuradun nagusiak.

Asko dira ibilbide luze honetan aipamena merezi duten izen propioak, baina alkate gisa Ramon Labayen aipatzea dagokit. Ez da batere harritzekoa Udala Udako Ikastaroen laguntzaile gisa inplikatzea bera alkate aukeratua izan zen urtean. Gure Hiriak kulturaren alde egin duen apustuaren aitzindari izan baitzen Kultura Sailburu izatetik Donostiako alkate izatera etorri zen Ramon Labayen. Urte hauetan guztietan, bizi dugun ezagutzaren ekosistema horren garapenean Udako Ikastaroek egindako ekarpena bikaina izan da. Halakoa da gaur egun ere. 350 ikaslerekin hasitako ikastaroek 15.000 ikasle izatera iritxi dira 40 urte hauetan. Zalantzarik gabe baiezta dezakegu Udako Ikastaroen historia erabat arrakastatsua izan dela gure hirian.

Gure hirira mundu guztiko talentua eta jakintza erakartzeko aukera aparta dira Udako Ikastaroak, eta hori guztia gure herriaren mesedetan. Une bakoitzean punta puntakoak diren gaiak aztertzen, eztabaidatzen eta jorratzen dira Donostian, baina baita Euskal Herriko beste hirietan ere. Horietaz jarduteko lehen mailako adituak izaten ditugu gure artean. Amaigabea litzateke euren jakintza gurekin partekatu duten irakasle bikainen zerrenda osatzea. Eta hori guztia, gu ere gure gizarteak dituen erronka nagusiei aurre egin ahal izateko adituak izan gaitezen. Eratu berri dugun Donostia Sustainibility Foruma ere bada horren guztiaren adibide. Horra hor hurrengo urteetarako tresnak eskainiko dizkigun gogoetarako gunea.

Baina 40 urte emankor hauen historia hizpide dugun honetan ezin aipatu gabe utzi Udako Ikastaroek euren egoitza duten Miramar Jauregia. 1990. urtetik hona ezinezkoa zaigu bi erakunde hauek bereiztea; hala izan bedi urte luzeetan. Seguruenik Miramar Jauregia Unibertsitatearen Uda Ikastaroen egoitza izateak irudikatzen du beste edozerk baino hobeto zein izan den gure hiriaren bilakaera, baina batez ere zein izan nahi duen bilakaera horrek etorkizunean ere.

Miramar Jauregia beste garai bateko Donostiaren ikur bat da, Gure Hiria aberatsek beren aisialdiaz gozatzeko erabiltzen zutenekoa. Diktaduraren urte latzetan, berriz, hezkuntzarako gune bilakatu zen, baina pribilegiatu gutxi batzuentzat bakarrik. Gaur egun, donostiar guztiona den leku eder hau jakintzaren eta kulturaren ikur bilakatu zaigu, jakin-mina eta ezagutzeko grina duen orori irekia. Ba al da egungo eta etorkizuneko Donostia irudikatu dezakeen leku hoberik?

40 urte betetzeak argi erakusten du Udako ikastaroak errotuta daudela gure hirian, baina batez ere etorkizuna direla, Donostiako Udala beti bidelagun izango duen etorkizuna.

Zorionak!

El hecho de que los Cursos de Verano cumplan 40 años en Donostia-San Sebastián constituye una buena ocasión para darnos cuenta de la enorme evolución que ha experimentado nuestra ciudad en los últimos años. Hoy reivindicamos con orgullo que Donostia es «la ciudad del conocimiento» y ello ha sucedido también gracias a los Cursos de Verano de la UPV/EHU.

La Diputación Foral de Gipuzkoa propuso en 1981 la organización de los Cursos de Verano. Esta propuesta no fue una idea irreflexiva, sino la continuación de la apuesta que se había realizado en años anteriores por impulsar los estudios universitarios en nuestra ciudad. Varias personas apostaron por ubicar y desarrollar la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea en nuestra ciudad. Sabían que esa era la línea que se debía seguir, junto con la recuperación de las instituciones vascas. Desde aquí queremos reconocer a todas esas personas la labor realizada. Su visión avanzada hizo posible la transformación de nuestra ciudad. Gracias a ellas, es hoy Donostia una ciudad universitaria de la que sus habitantes somos los principales beneficiarios.

Son muchos los nombres que merecen mención en este largo recorrido, pero como alcalde me corresponde citar a Ramón Labayen. No es de extrañar que el Ayuntamiento se implicase como colaborador de los Cursos de Verano el año en que fue elegido alcalde. No en vano fue pionero en la apuesta por la cultura de nuestra ciudad cuando ocupó el puesto de alcalde tras haber sido consejero de cultura.

Durante todos estos años, la contribución de los Cursos de Verano al desarrollo de este ecosistema de conocimiento en el que vivimos ha sido extraordinaria. Así sigue siendo hoy en día. Los cursos que se iniciaron con 350 alumnos y alumnas han alcanzado los 15 000 en estos 40 años. Podemos afirmar con total seguridad que la historia de los Cursos de Verano en nuestra ciudad ha sido una historia de éxito rotundo.

Los Cursos de Verano son una gran oportunidad para atraer talento y conocimiento de todo el mundo, algo que nos beneficia enormemente como pueblo. En Donostia, y en otras ciudades de Euskal Herria se analizan, debaten y tratan temas que son punteros en cada momento. Para abordar todos esos temas contamos con personas expertas de primer nivel. Tratar de hacer una lista con los nombres del excelente profesorado que ha compartido sus conocimientos con nosotros para que seamos también expertos y expertas en hacer frente a los principales retos que tiene nuestra sociedad sería una tarea interminable. Y hablando de retos del futuro debemos mencionar el recién constituido *Donostia Sustainibility Forum*, el espacio de reflexión que nos ofrecerá herramientas para conocer y participar en el compromiso por la sostenibilidad del planeta para los próximos años.

Pero en la historia de estos 40 años tan productivos no podemos dejar de mencionar el Palacio de Miramar, sede de los Cursos de Verano. Desde 1990 nos es imposible separar a estas dos instituciones, ¡y que siga siendo así por muchos años! Seguramente el hecho de que el Palacio de Miramar sea sede de los Cursos de Verano de la Universidad representa, mejor que cualquier otra cosa, cuál ha sido la evolución de nuestra ciudad, pero, sobre todo, cuál es la evolución que quiere seguir teniendo en el futuro.

El Palacio de Miramar es un símbolo de la Donostia de otra época en la que las personas más pudientes hacían uso de él para su ocio. En los años difíciles de la dictadura se convirtió en un espacio dedicado a la educación, pero sólo para unos pocos privilegiados. Hoy en día, este bello lugar que pertenece a todas y todos los donostiarras, se ha convertido en un símbolo de conocimiento y cultura, abierto a todas aquellas personas que tengan curiosidad y pasión por el conocimiento. ¿Hay algún lugar que pueda representar mejor la San Sebastián actual y futura?

Haber cumplido 40 años demuestra que los Cursos de Verano están arraigados en nuestra ciudad, pero que, sobre todo, son el futuro al que siempre acompañará el Ayuntamiento de San Sebastián.

¡Enhorabuena!

## Markel Olano

Gipuzkoako Diputatu Nagusia
Diputado General de Gipuzkoa

*Hezkuntza funtsezkoa da garapen pertsonalerako*
*eta gizarteen etorkizunerako.*
*Aukerak irekitzen ditu eta desberdintasunak murrizten.*
*Gizarte informatuen eta toleranteen oinarriak osatzeaz gain,*
*garapen jasangarriaren funtsezko motorra ere bada.*

António Manuel Guterres
Nazio Batuen idazkari nagusia, 2020

*La educación es la clave para el desarrollo personal*
*y el futuro de las sociedades.*
*Abre oportunidades y reduce las desigualdades.*
*Constituye los cimientos de las sociedades informadas*
*y tolerantes y es un motor fundamental del desarrollo sostenible.*

António Manuel Guterres
Secretario general de las Naciones Unidas, 2020

Funtsean, demokrazian, zientzian eta arrazoian sinesten dugunok mundua eraldatzeko helburuak mugiarazten gaitu. Gure ingurune hurbila, gure gizartea, gure herria aldarazi nahi dugu, pertsona guztientzako ongizate eta berdintasun maila handiagoetara iristeko. Izan ere, uste dugu, zailtasunak zailtasun, ezagutza zientifikoa, ideien eztabaida askea eta borondate eraikitzailea tresnarik onenak direla hurrengo belaunaldientzat etorkizun berdinzaleago, justuago eta jasangarriago bat eraikitzeko. Uste hori, utopikoa iruditu lezakeen arren, hezkuntzaren bidez baino ezin da gauzatu, gizartea osatzen duten pertsona guztiei balioak eta ezagutzak helaraziz, hain justu.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoak azken hamarkadetan lortu duen eredu sozioekonomikoaz hitz egitean, ezinbestekoa da hezkuntzaren eta ezagutzaren eremuetan lehen mailako erakundeak dauzkagula azpimarratzea. Gipuzkoan bost unibertsitate, Lanbide Heziketako sare berritzaile bat eta I+G sistema bat dauzkagu, urtez urte ezagutza aurreratua sortzen ari dena. Ezagutza hori unibertsitateetara eta goi mailako prestakuntza zentroetara bideratzen da pixkanaka. Gure lurraldeak, Euskadi osoak bezala, hezkuntzaren eta ezagutzaren aldeko apustua egiten du, eta horrek gizarte gero eta demokratikoago, irekiago eta aurreratuago bat eraikitzen laguntzen du.

Apustu horretan, UPV/EHUko Uda Ikastaroak ezinbestekoak dira, zalantzarik gabe. Izan ere, gizarte moderno batek, betiere zientziaren eta ezagutzaren bitartez, konponbide partekatuak bilatu behar dizkie arazo zahar eta berriei. Unibertsitatearen

En el fondo, lo que mueve a las personas que creemos en la democracia, la ciencia y la razón no es otra cosa que el objetivo de transformar el mundo. Cambiar nuestro entorno inmediato, nuestra sociedad, nuestro país, hacia mayores cotas de bienestar y de igualdad para todas las personas. Porque confiamos en que, pese a todas las dificultades, el conocimiento científico, el debate de ideas en libertad y la voluntad constructiva son las mejores herramientas para construir un futuro más igualitario, justo y sostenible para las generaciones venideras. Una convicción que, aunque pueda parecer utópica, solamente puede materializarse a través de la educación. A través de la transmisión de valores y de conocimientos a todas las personas que forman parte de la sociedad.

Por todo ello, al hablar del modelo socio-económico del que se ha dotado Gipuzkoa en estas últimas décadas, resulta imprescindible resaltar la existencia de instituciones de primer nivel en el ámbito de la educación y del conocimiento. Gipuzkoa cuenta con cinco universidades, una innovadora red de Formación Profesional y un sistema de I+D que lleva años generando conocimiento avanzado que, poco a poco, se traslada a los centros universitarios y de formación superior. Nuestro territorio, al igual que Euskadi en su conjunto, apuesta por la educación y el conocimiento. Algo que redunda en la construcción de una sociedad cada vez más democrática, abierta y avanzada.

En esa apuesta, sin duda alguna, los Cursos de Verano de UPV/EHU juegan un papel destacadísimo. Porque una sociedad moderna debe buscar, siempre a través de la ciencia y del saber, soluciones compartidas a los viejos y nuevos problemas. El rol de



rola funtsezkoa da ahalegin kolektibo horretan, eta Uda Ikastaroek dagoeneko lau hamarkada daramatzate ekinean, urtez urte uda garaian prestakuntzarako, dibulgaziorako eta hausnarketa partekaturako leiho bat irekitzen.

Funtsezko zeregin horri gehitzekoak izan daitezke ezagutza demokratizatzea, gure gizarteari eta gure herriari eragiten dieten arazo berriak –eta arazo horiei aurre egiteko irtenbide posibleak– identifikatzea eta karakterizatzea, eztabaida sustatzea eta ideien truke demokratikoa ahalbidetzea. Azken batean, lurralde toleranteagoa, berdinzaleagoa eta solidarioagoa eraikitzea; demokratikoagoa, finean.

Lerro hauen bitartez, publikoki aitortu nahi nuke Euskal Herriko Unibertsitateak eta haren Uda Ikastaroek Gipuzkoako gizartearekin duten konpromisoa, eta baita hamarkadaz hamarkada –gizarte zein ekonomia arloan– lurralde aurreratuago bat eraikitzen egin duten ekarpena ere.

Duela berrogei urte, gaur ordezkatzen dudan Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan sortu zen Donostian Uda Ikastaroak antolatzeko ideia. Apustu irmo bat izan zen, hasierako esperimentazioaren ondoren gorpuztuz joan zena, UPV/EHUren eta ekimenarekin bat egin zuten erakundeen inplikazioari esker; ordutik gaur arte, babesa ematen jarraitu dute.

Zeregin horretan, ezin aipatu gabe utzi Ricardo Echepare, haren erabakitasuna eta argitasuna erabakigarriak izan baitziren Uda Ikastaroen antolaketa garatzeko, kalitatea eta nazioarteko erreferentzialtasuna ezaugarritzat dituen errealitate arrakastatsu bihurtu arte. Lan hori aberastu eta sendotu egin da, gainera, ikastaroen ibilbide luzean horiek zuzentzeko ardura beren gain hartu duten zuzendari guztien ekarpen garrantzitsuari esker.

Halaber, aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkiet bertan buru-belarri lanean aritu diren lantaldeei, langileei eta irakasleei: zuen lan jardun egokiari esker, ekarpen handia egin duzue urte hauetan guztietan ikastaroak arrakastaz gauzatu zitezen.

Hala ere, ziurrenik, lehen 40 urte hauek ez dira izango aurrera jarraituko duen bide baten hasiera besterik. Etengabe egokitu beharko dugu unean uneko garaietara. Horixe da, hain zuzen ere, gure nahia.

Aski da gure inguruan begiratzea. Eraldaketa sakonen garaian gaude, aldaketa kultural, sozial eta ekonomiko handiko aldi batean. COVID-19aren pandemiak nabarmen areagotu du aldaketa hori, gainera. Etengabe aldatzen ari den testuinguru honetan, erantzuna bilatu behar zaie gizartearen premia eta erronka berriei. Erronkak askotarikoak eta ugariak dira, hauexek adibidez: desberdintasun sozialak areagotzen

la universidad resulta esencial en ese esfuerzo colectivo y los Cursos de Verano llevan ya cuatro décadas contribuyendo en ese empeño, abriendo todos los años una ventana estival para la formación, la divulgación y la reflexión compartida.

A esta tarea fundamental le podemos añadir la democratización del conocimiento, la identificación y la caracterización de nuevos problemas que afectan a nuestra sociedad y a nuestro país –así como posibles soluciones ante ellos–, el impulso al debate y el intercambio democrático de ideas. En definitiva, la construcción de un territorio más tolerante, igualitario y solidario; más democrático, al fin y al cabo.

Mediante estas líneas, me gustaría reconocer públicamente el compromiso de la Universidad del País Vasco y de sus Cursos de Verano con la sociedad guipuzcoana, así como la contribución realizada durante décadas en la construcción de un territorio más avanzado, tanto en lo social como en lo económico.

Hace cuarenta años, en el seno de la propia Diputación Foral de Gipuzkoa que en la actualidad me toca representar, surgió la idea de organizar unos Cursos de Verano en Donostia. Una apuesta decidida que, tras el carácter experimental de aquellos comienzos, fue cogiendo cuerpo gracias a la implicación de UPV/EHU y de las instituciones que se sumaron a la iniciativa y que han mantenido su apoyo a lo largo de este tiempo.

Sería injusto no mencionar en este cometido a Ricardo Echepare, cuya determinación y clarividencia al frente de los cursos fue determinante a la hora de desarrollar la organización de los Cursos de Verano hasta convertirlos en la realidad exitosa que hoy conocemos, caracterizada por su calidad y su referencialidad internacional. Una labor que ha seguido enriqueciéndose y consolidándose gracias al aporte de todos los directores y las directoras que han asumido la responsabilidad de dirigir los Cursos en su larga trayectoria.

Todo el reconocimiento y el agradecimiento, asimismo, a los equipos, al personal y al profesorado que, con su buen hacer profesional, también han contribuido a su exitoso desarrollo durante todos estos años.

Sin embargo, probablemente, estos primeros 40 años no serán sino el inicio de un camino que seguirá avanzando. En constante adaptación a los tiempos que corran en cada momento. Ese es, precisamente, nuestro deseo.

Basta con mirar a nuestro alrededor. Nos encontramos en una época de hondas transformaciones, un periodo de cambio cultural, social y económico de enorme profundidad, que a todas luces se ha visto acrecentado por la pandemia de COVID-19. Un contexto en constante cambio que exige buscar respuestas a las nuevas necesidades y desafíos de la sociedad. Los retos son

ari dira mundu osoan, klima aldaketak premiazko erantzuna eskatzen du, gure enpresa sarea digitalizatze bidean da, eta krisi demografikoaren eta migrazioen garaian gaude, besteak beste.

Gipuzkoak, Aldundiak bultzatutako Etorkizuna Eraikiz programaren bidez, arazo horiei aurre egin nahi die esperimentazioaren eta herritarrekiko lankidetzaren bitartez. Etorkizuneko arazoei eta erronkei aurre egiteko eredu berri horretan, unibertsitateek eta ezagutza aurreratuko zentroek funtsezko zeregina dute, eta Uda Ikastaroen ekarpena erabakigarria izango da eremu horretan. Ez soilik udaz uda Miramar Jauregian sortzen den eztabaidarako eta hausnarketarako leiho horren bitartez, baizik eta baita –lau hamarkadatan egin bezala– balio demokratikoak oinarri dituzten herritar kritiko eta prestatuak sortuz ere.

Gipuzkoarrok gure etorkizunari aurre egiteko funtsezkoak izan daitezkeen bi balio dauzkagu: ekintzarako orientazioa eta lankidetzarako jarrera. Gipuzkoak, Euskadiren barruan, badu berezko eredu bat gauzak egiteko. Gure enpresek, elkarteek, instituzioek, unibertsitateek eta gizarte erakundeek jarrera horri eutsi diote, baita garairik zailenetan ere. Inolako harrokeriarik gabe, eredu honen balioak aldarrikatu nahi nituzke, inspirazio iturri izan baitira beti UPV/EHUko Uda Ikastaroetan ere. Balio horietan eragin behar dugu gure herriaren ongizatea hobetzen jarraitu nahi badugu eta etorkizunak ekarriko dizkigun arazoei aurre egin nahi badiegu.

Zorionak Uda Ikastaroei, zorionak Euskal Herriko Unibertsitateari; aurrerantzean ere bidelagun izango duzue Gipuzkoako Foru Aldundia.

diversos y numerosos: el aumento de desigualdades sociales en todo el mundo, el cambio climático que nos exige una respuesta urgente, la digitalización de nuestro tejido empresarial, la crisis demográfica y las migraciones, por citar algunos.

Gipuzkoa, a través del programa Etorkizuna Eraikiz impulsado por la Diputación, busca afrontar estos desafíos a través de la experimentación y de la colaboración con la ciudadanía. Un nuevo modelo para afrontar los problemas y los retos de futuro en el que las universidades y los centros de conocimiento avanzado juegan un papel fundamental y en el que la contribución de los Cursos de Verano también se antoja crítica. No solamente a través de esa ventana estival al debate y a la reflexión que se genera todos los veranos en el Palacio Miramar, sino también contribuyendo –tal y como viene haciendo durante cuatro décadas– a la construcción de una ciudadanía crítica, formada y basada en valores democráticos.

Contamos las y los guipuzcoanos con dos valores que pueden resultar claves a la hora de afrontar nuestro futuro: una orientación hacia la acción y el espíritu de colaboración. Gipuzkoa, en el seno de Euskadi, tiene su propio modelo de hacer las cosas. Nuestras empresas, asociaciones, instituciones, universidades y entidades sociales han mantenido esta actitud incluso en los tiempos más difíciles. Sin vanidad alguna, me gustaría reivindicar los valores de este modelo. Se trata de dos valores que también han inspirado siempre la labor de los Cursos de Verano de UPV/EHU. Valores en los que debemos incidir si queremos seguir mejorando el bienestar de nuestro pueblo y afrontar los desafíos que nos seguirá trayendo el futuro.

Zorionak Udako Ikastaroak, zorionak Euskal Herriko Unibertsitatea, aurrerantzean ere bidelagun izango duzue Gipuzkoako Foru Aldundia.



## Jokin Bildarratz

Hizkuntza Sailburua
Consejero de Educación

Ikastea, horrek dakarren plazerragatik, besterik gabe. Ikastea, entzuteak eta ulertzeak aberastu egiten gaituelako: dagoeneko ezagun zaizkigun edukietan sakonduz edo norberaren egunerokoan erabat arrotz diren edukietan esperimentatuz. Etekin profesionalaren bila edo entretenimendu intelektualaren atzetik. Denak du lekua UPV/EHUren Uda Ikastaroen bidezko ikasteko desioan. Eta horrela da, duela 40 urtetik hona.

Gaur ezaguna zaigu Uda Ikastaroen potentziala, gizarte honi ematen dion guztia, baina duela lau hamarkada, beharbada, zalantzak azalduko ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UPV/EHUk herritarrei ordura arte Euskadin ezezaguna zen kultura-proposamen bat eskaintzeari ekin ziotenean. Izango zen, ziurrenik, uda eta oporrak koaderno eta hitzaldiekin uztartzen zituen ekimenaren arrakastaren alde apusturik egiten ez zuenik. Baina datuak argiak dira. Abian jarri ondoren, Eusko Jaurlaritzak ere apustuarekin bat egin behar zuela erabaki zuen, eta ordutik Jaurlaritzaren babesa ikastaroak eurak bezain sendo mantendu da.

Uda ikastaroek duten ezaugarririk interesgarrienetako bat, nire iritziz, ikastaroetako bakoitzean gertatzen den jende eta helburu nahasketa da: jorratzen ari den arloko profesionalak, aditu analistak, ikastaroan lantzen ari den gaiaz besteko ikasketak egiten ari diren unibertsitate-ikasleak, lan-bizitza amaitu ondoren ezagutza aberastu nahi duten gizon-emakumeak, edo, besterik gabe, jakin-minez hurbildu direnak. Beti dago arrazoiren bat ikastaroen eskaintza zabalera hurreratzeko. Ikastaroek ezagutza demokratizatzen dute, eta bertaratutakoek ez dute zertan beren presentziaren arrazoia erakutsi edo azaldu behar. Begien bistakoa dirudien hori berez da arrakastatsua.

Hezkuntza sailburu gisa, txalotu eta defendatu egiten dut Eusko Jaurlaritzak urte hauetan guztietan hezkuntzaren arloan egin duen ibilbidea. Orain, arduradun politikoa naizen aldetik, uste dut hezkuntzari lotutako ikastaroen diseinuan dugun parte hartzea aukera bikaina dela gure azterketa eta hausnarketa eskatzen diguten gaien zerrenda urtero egune-

Aprender por el mero placer de aprender. Aprender porque escuchar y entender nos enriquece y nos alimenta la curiosidad: profundizando en materias ya conocidas o experimentando con contenidos absolutamente ajenos al día a día de cada uno. Buscando un aprovechamiento profesional o persiguiendo un entretenimiento intelectual. Todo cabe en el deseo de aprender a través de los Cursos de Verano de la UPV/EHU. Y así desde hace 40 años.

Hoy conocemos el potencial de los Cursos de Verano, todo lo que nos aporta como sociedad, pero posiblemente las dudas estuvieron presentes hace cuatro décadas, cuando la Diputación Foral de Gipuzkoa y la UPV/EHU se lanzaron a ofrecer a la ciudadanía una propuesta cultural hasta entonces desconocida en Euskadi. A buen seguro habría quienes no apostaran por el éxito de una iniciativa que fusionara el verano y las vacaciones con cuadernos y conferencias. Pero los datos están ahí. Tras su arranque, también el Gobierno Vasco decidió que debía sumarse a la apuesta y desde entonces su apoyo se ha mantenido tan firme como los propios cursos.

Una de las características más interesantes de los Cursos de Verano es, en mi opinión, la mezcla de objetivos que se da en cada uno de sus cursos: profesionales de la materia en cuestión, expertos y expertas analistas, estudiantes universitarios que cursan estudios distintos al tema sobre el que trata el curso, hombres y mujeres que desean enriquecer su conocimiento tras finalizar su vida laboral o simplemente curiosos. Siempre hay un porqué, un motivo por el que acudir a una de las múltiples propuestas. Los cursos democratizan el conocimiento, y lo hacen sin que ninguno de los y las asistentes tenga que demostrar ni explicar el porqué de su presencia. Esto que puede parecer obvio, es un éxito en sí mismo.

Como consejero de Educación, aplaudo y defiendo la trayectoria que el Gobierno Vasco ha llevado a cabo durante todos estos años en el ámbito de la educación. Ahora como responsable político, considero que nuestra participación en el diseño de los cursos vinculados a la educación es una excelente oportunidad para refrescar anualmente la relación de temas

ratzeko. Hezkuntzak izan duen bilakaerak ere badu isla ikastaroetan. Aurten, Haur Hezkuntzari buruz aritzea proposatu dugu, teknologiak ikasgeletan sartzeari buruz –STEAM Estrategiaz–, espazioen eta metodologien bidez hezkuntzan izandako aldaketez, bai eta eskola-espazioetako bizikidetzari buruz ere. Horiek guztiak interes handiko gaiak dira hezkuntzako profesionalentzat –horiengan pentsatuta diseinatzen dira, bereziki, ikastaroak, etengabeko prestakuntzaren zati gisa–, baina baita, esan dudan bezala, ikasteko interesa duen edonorentzat ere.

Duela urte gutxi batzuk, 2015ean, edizio hartan eskaintzen ziren ikastaroetako bat antolatzen parte hartu nuen. Euskadiko alderdi politikoetako arduradun nagusiek erabakitzeko eskubidearen inguruan hausnarketa egitea onartu zuten. Azpimarratu behar dut esperientzia hura bi aldiz gertatu zitzaidala aberasgarri: topaketa haren antolatzaile eta kudeatzaile gisa, eta han azaldu ziren gogoeten entzule gisa. Beste adibide bat gehiago izan zen hura, UPV/EHUko Uda Ikastaroen babespean antolatutako milaka hitzaldi eta mahai-inguruen artean topaketa bat gehiago, baina oroitzapen ahaztezina utzi zidan. Pentsatzen dut bertan izan ziren entzuleetako batzuk ere gogoratuko direla. Eta horretan datza, hain zuzen ere, Uda Ikastaroen ekarpena: ikastea eta entzutea. Eta gogoratzea. Eta gozatzea. Eta partekatzea.

Amaitzeko, nire azken hitzak berrogei urtez Udako Ikastaroen garapenean aktiboki parte hartu duten pertsona guztiei zuzendu nahi nizkieke. Orain Itziar Alkortaren eta bere taldearen txanda da, baina nire esker ona lau hamarkada atzera hedatu nahi dut, batez ere uda eta oporrak koaderno eta hitzaldiekin uztartzeko apustua egin zuen pertsona talde hari.

que requieren de un análisis y reflexión por nuestra parte. La evolución de la educación también tiene reflejo a través de los cursos. Este año hemos propuesto hablar de Educación Infantil, de la irrupción de las tecnologías en las aulas –de la estrategia STEAM–, de los cambios en la educación a través de los espacios y las metodologías y también de la convivencia en los espacios escolares. Todos ellos asuntos del máximo interés para las y los profesionales de la educación –en quienes se piensa especialmente a la hora de diseñar los cursos, como parte de su formación continua–, pero también, como digo, para cualquier persona con interés en aprender.

Hace unos pocos años, en 2015, participé en la organización de uno de los cursos que se ofertaban en aquella edición. Los máximos responsables de las diferentes formaciones políticas de Euskadi aceptaron reflexionar abiertamente sobre el derecho a decidir. Debo subrayar que aquella experiencia me enriqueció doblemente: como organizador y gestor de aquél encuentro y como oyente de las reflexiones que allí se trasladaron. Fue un ejemplo más, un encuentro más de los miles de charlas y mesas redondas que se habían organizado bajo el paraguas de los Cursos de Verano de la UPV/EHU, pero me dejó un recuerdo imborrable. Imagino que algunos de los oyentes que asistieron al encuentro también lo recordará. Y en eso consiste precisamente la aportación de los Cursos de Verano: aprender y escuchar. Y recordar. Y disfrutar. Y compartir.

Para concluir, deseo que estas últimas palabras vayan dirigidas a todas las personas que durante estos cuarenta años han participado activamente en el desarrollo de los Cursos de Verano. Ahora le toca el turno a Itziar Alkorta y a su equipo, pero quiero que mi agradecimiento se extienda cuatro décadas atrás, especialmente a aquél grupo de personas que apostó por fusionar el verano y las vacaciones con cuadernos y conferencias.



## Eva Ferreira

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea
Rectora de la Universidad del País Vasco

Sinboloak eta hitzak. Hitzezko adierazpena eta adierazpen grafikoa. Gizakiok bi tresna bikain ditugu gure errealitatea eta gure pentsamendua proiektatzeko; are gehiago, gure proiektu partekatuen errealitatea proiektatzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Uda Ikastaroek berrogei urte betetzen dituzte aurten. Aukera ezin hobea da urteurrena ospatzeko eta adierazteko. Hitzen bidez adieraz dezakegu, eta sinboloen bidez.

Ez da behar bezala nabarmendu Euskal Herriko Unibertsitatearen lehen ekintzetako bat, 1980an gaur egun duen izaera hartu zuenean, Uda Ikastaroak sortzea izan zela. Ikastaroek eta gure unibertsitateak ia aldi berean hasi zituzten beren ibilbideak, eta, beraz, ikastaroak erabat loturik daude unibertsitatearen identitateari.

Erakundeen betebeharra da beti etorkizunerantz begiratzea, baina ez da nahikoa hori egitea buru argitasunez, baldin eta ez bada gordetzen, halaber, jada gertatu denaren eta jada esperimentatu denaren memoria. Alde horretatik, «Sinboloen eta hitzen artean» ibilbide luze horren berrikuspen bat da: lau hamarkadatako unibertsitate lana udan. Berrikuspen horrek barne biltzen du sinboloen ibilbide bat eta hitzen ibilbide bat, elkarrizketa emankor baten bidez eta sentipenak trukatuz.

Berrogei urte hauetan, Uda Ikastaroak izan dira gure lan akademikoaren fruitu aipagarrienetakoa. Ezagutzaren transferentzian eta inpaktu sozialean izandako arrakastaren adibide izan dira. Hori gabe, Euskal Herriko Unibertsitatea oso bestelako gauza izango litzateke. Horregatik, hori azpimarratu behar dugu, eta gogoratu denbora honetan guztian lagundu diguten hitzekin eta sinboloekin.

Símbolos y palabras. Expresión verbal y expresión gráfica. Los seres humanos contamos con dos herramientas extraordinarias para proyectar en la realidad nuestro pensamiento; todavía mejor, para proyectar en la realidad nuestros proyectos compartidos.

Los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) cumplen este año su cuadragésimo aniversario. Es una excelente oportunidad para celebrar y para expresar. Y podemos expresarnos a través de las palabras, a través de los símbolos.

No se ha subrayado lo suficiente que una de las primeras acciones de la Universidad del País Vasco, cuando adquirió su actual naturaleza en 1980, fue promover la creación de los Cursos de Verano. Los cursos se identifican hasta tal punto con la identidad de nuestra universidad que prácticamente iniciaron su camino al mismo tiempo.

Es obligación de las instituciones mirar siempre hacia el futuro, pero no es posible hacerlo con suficiente lucidez si no se preserva, también, la memoria de lo ya ocurrido, de lo ya experimentado. En ese sentido, «Entre símbolos y palabras» quiere ser una revisión de ese largo trayecto: cuatro décadas de trabajo universitario en el período estival. Esa revisión comporta un itinerario de símbolos y un itinerario de palabras, estableciendo un diálogo fecundo e intercambiando sensaciones.

Estos cuarenta años de Cursos de Verano han sido uno de los frutos más estimables de nuestro trabajo académico. Han sido un ejemplo de éxito en transferencia de conocimiento y en impacto social. Sin ellos, la Universidad del País Vasco sería algo muy distinto. Por eso debemos subrayarlo, recordarlo, con las palabras y los símbolos que nos han acompañado a lo largo de este tiempo.


Donostia
Sustainability
Forum
















BERRIKAS
DEZAGUN
RESET

# Hitzak eta sinboloak aurrera jarraitzeko

# Palabras y símbolos para seguir adelante



Erakunde akademikoen bilakaeran, tradizio bat izaten da egindako bidearen etapak oroitzea, haien izaera markatu duten gertaerak biltzen baitituzte. Horrela, 2021ean, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Uda Ikastaroen sorreraren 40. urteurrena bete da. Efemeride horretan hezkuntza proiektu baten jatorria eta bilakaera ekarri nahi dugu gogora; izan ere, unibertsitateko erantzukizunak parte hartzen duen esparru guztietatik, pertsona askoren bizitzan esperientzia eta ikaskuntza esanguratsuak areagotzea ekarri du. Proiektuak bilakaera izan du, pixkanaka, gizarte paisaiaren etengabeko eraldaketei egokitu ahal izateko, betiere bere gain hartuta giza garapenerako funtsezko ernamuin lana. Atzera begiratzea erabaki dugu etorkizunerako anezka bihur dadin, bidean ondo arnastuta hasitako ibilbidean urrats sendoak egiten jarraitzeko.

Atzera begirako prozesu honetan, hitzez eta sinboloz laburbildu nahi izan dugu UPV/EHUren Uda Ikastaroen berrogei urteen hasiera eta bilakaera. Izan ere, hitzek eta sinboloek leku pribilegiatua dute kulturaren baliabideen barruan, oro har, eta hezkuntza agertokien barruan, bereziki. Alde batetik, gizarte topaketa aktibatzeko funtsezko mekanismo diren aldetik, eta, bestetik, gertaerak irudikatu, gogora ekarri, ezagutu, identifikatu, finkatu edo aurreratzean sortzen duten memoriarekin eta dinamismoarekin duten loturagatik. Hitzek eta sinboloek, adieraziak eta irudikatuak direnez, gure burua ulertzen laguntzen digute bizi garen ingurunearekin dugun harremanean, beste gizaki batzuekin lotzen gaituzte eta, hedaduraz, gure kulturarekin identifikatzen gaituzte. Batzuek egin ezin dutena besteek egiten dute, gauzen konplexutasuna ulertzen saiatzeko eta gure hurkoei azaltzeko. Hauxe da haien boterearen aitorpena.

En el devenir de las instituciones académicas, constituye una tradición el conmemorar las distintas etapas del camino recorrido y que van marcando la propia existencia. Así, en el presente año 2021, se cumple el 40 Aniversario de la creación de los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Una efeméride en la que queremos recordar el origen y evolución de un proyecto educativo universitario que ha supuesto, desde los más diversos ámbitos de los que participa la responsabilidad universitaria, un incremento de experiencias y aprendizajes significativos en la vida de tantas personas. Una existencia que ha ido evolucionando paulatinamente atendiendo a las continuas transformaciones del paisaje social, asumiendo siempre su labor de germen primordial para el desarrollo humano. Una mirada hacia atrás con el objetivo de que esta se convierta en una lanzadera hacia el futuro, aspirando aire que ayude para seguir avanzando con pasos firmes el camino iniciado.

En este proceso de retrospección hemos querido sintetizar con palabras y símbolos el inicio y evolución de estos cuarenta años de los Cursos de Verano de la UPV/EHU. Y esto es así desde el reconocimiento de que las palabras y los símbolos ocupan un lugar privilegiado dentro de los recursos de la cultura, en general, y de los escenarios educativos, en particular. Por una parte, como mecanismos esenciales para activar el encuentro social y, por otra parte, por su relación con la memoria y el dinamismo que generan al representar, rememorar, reconocer, identificar, consolidare o anticipar los acontecimientos. Las palabras y los símbolos, al ser expresados y representados, nos ayudan a la comprensión de nosotros mismos en nuestra relación con el entorno en el que vivimos, nos vinculan con otros seres humanos y, por extensión, nos identifican con nuestra cultura. Lo que no pueden hacer unos lo hacen los otros, a la hora de intentar comprender la complejidad de las cosas y poder explicarlo a nuestros semejantes. Este es el reconocimiento de su poder.

UPV/EHUren Uda Ikastaroen 40. urteurrena gogoratzeko liburu honetan, udaldietan zehar unibertsitateko hezkuntzaren ibilbide osagarri bat aitortzeko eta identifikatzeko erabili diren hitzak eta sinboloak nabarmendu nahi izan ditugu. Hitzak eta sinboloak, gure unibertsitate publikoko Uda Ikastaroen kontzeptuak eta balioak deskribatzeko eta komunikatzeko bi adierazpide, Ricardo Echeparek Ikastaroen zuzendari gisa eman zion agurrean adierazi zuen nahiari eusteko elkartu ditugunak: indar berrituekin aurrera jarraitzea, ideiak berreskuratuz.
Orrialde hauei Uda Ikastaroen ikur identifikatzailearen jatorria erakutsiz emango diegu hasiera. Haren egile Eduardo Chillidaren hitzetan «Unibertsitatearekiko lotura adierazten duen besarkada bat». Guztiok ezagutzen dugun sinbolo bat, Uda Ikastaroak herrialdearekin lotzen eta errotzen dituena, eta, aldi berean, etorkizunera proiektatzen gaituena.
Jarraian, gaur arte izandako Uda Ikastaroen berrogei edizioetako bakoitzeko gertakari esanguratsuenak laburbiltzen saiatuko diren berrogei hitz aurkeztuko ditugu. Hitz horiek zentzu figuratiboa ematen diote esandakoari eta egindakoari, Uda Ikastaroen urte hauetako guztietako jarrera eta ekintzak zehaztuta.
Eta amaitzeko, Uda Ikastaroen edizioak identifikatzen dituzten kartelen sorta bat aurkeztuko da. Kartelak Uda Ikastaroetako Diseinu Grafikoko Tailerrean egin dira eta sortze prozesuan hitzetan izan dute oinarria beti. Hitzak Uda Ikastaroen erakundeak ordezkatzen duena definitzen eta interpretatzen saiatzen dira beti: zer egiten duen, zertarako, norentzat, nola, edo haiengandik zer espero den.

En este libro conmemorativo del 40 Aniversario de los Cursos de Verano de la UPV/EHU, hemos pretendido resaltar aquellas palabras y símbolos con los que se ha podido reconocer e identificar una trayectoria educativa de complemento universitario durante los periodos estivales. Palabras y símbolos, dos formas de expresión para describir y comunicar conceptos y valores de los Cursos de Verano de nuestra universidad pública y que hemos conjuntado para mantener el deseo que ya manifestó Ricardo Echepare en su despedida como director de los Cursos: seguir adelante con fuerzas renovadas, rescatando ideas.
Entre estas páginas se comienza mostrando el origen del símbolo identificador de los Cursos de Verano que, en propias palabras de su autor, Eduardo Chillida, representa «un abrazo que expresa el entronque con la propia Universidad». Un símbolo que todos identificamos, que une y arraiga a los Cursos de Verano con el país, al tiempo que nos proyecta al futuro.
A continuación, se exponen cuarenta palabras que intentan sintetizar respectivamente los acontecimientos más significativos de cada una de las cuarenta ediciones de los Cursos de Verano celebradas hasta la fecha. Unas palabras que adquieren un sentido figurativo a lo que se ha dicho y se ha hecho, y que han determinado la actitud y las acciones de los Cursos de Verano durante todos estos años.
Y ya para finalizar, se presenta una selección de carteles identificadores de diferentes ediciones de los Cursos de Verano. Unos carteles realizados en el Taller de Diseño Gráfico de los propios Cursos de Verano y que en su proceso de creación siempre se ha partido desde las palabras. Palabras que intentan definir e interpretar lo que la entidad de los Cursos de Verano representa: qué es lo que hace, para qué, para quienes, de qué manera, o qué se espera de ellos.

# Chillidaren sinbolo bat Uda Ikastaroentzat

# Un símbolo de Chillida para los Cursos de Verano

*Euskal Unibertsitatearen alde: Chillidaren sinboloaren babesean sortutako ilusio kolektibo bat*

*Pro Universidad Vasca: una ilusión colectiva fraguada bajo el símbolo de Chillida*



UPV/EHUko Uda Ikastaroen nortasun ikurraren jatorria eta esanahia ulertzeko, 1975era jo behar dugu. Martin Ugalde idazle eta kazetariak Eduardo Chillida eskultore, margolari eta grabatzaile donostiarrari eginiko elkarrizketa batean, Euskal Unibertsitate bat izatea garrantzitsua iruditzen zitzaion galdetu zion. Emandako erantzunean, artistak garai hartan euskal gizartean zebilen korronte intelektual batek zituen kezken berri eman zion.

Para comprender el origen y el significado del símbolo de identidad de los Cursos de Verano de la UPV/EHU debemos remontarnos a 1975. En una entrevista que el escritor y periodista Martín de Ugalde mantuvo con el prestigioso escultor, pintor y grabador donostiarra Eduardo Chillida, aquel le preguntó si le parecía importante una Universidad Vasca. En su contestación, el artista dio una buena muestra de las inquietudes que impulsaban una corriente intelectual que recorría en aquellos momentos en la sociedad vasca.

*«Garrantzitsuena. Beste herriek unibertsitateak dituzten bezala, bere kultur aurrekarien eta sustrai espiritualen bila dabilenaren ahalegin maitekorra egiten duten unibertsitateak, beren hizkuntza, historia, historiaurrea, etnografia, bere arkeologia partikularra zein esanahi unibertsala duena grinaz eta bidezko grinaz ikasten dutenen ahalegina egiten duena, gure herria, hainbeste gauzaren adibide bakarti eta abandonatu, arreta horren, oinarrizko kezka horren hartzekodun ere bada. Ez dut ulertzen gaur, XX. mendearen amaierara iristen ari garen honetan, gizakia zeruan zehar bidaiatzeko gai denean, nola gurea bezalako kultura bati sistematikoki ukatzen zaizkion hura aztertzeko baliabideak, baimena eta eskubidea»*

Eduardo Chillida

*«Lo más importante. Así como los demás pueblos tienen universidades que dedican el esfuerzo cariñoso de quien está buscando el significado de sus antecedentes culturales, de sus raíces espirituales, que estudia con pasión y con pasión legítima, su lengua, su historia, su prehistoria, su etnografía, su arqueología particular, además de las que tienen significación universal, nuestro pueblo, ejemplo solitario y abandonado de tantas cosas, es también acreedor de esta atención, de esta preocupación elemental. Lo que no entiendo es cómo hoy, cuando estamos llegando al final del siglo XX, cuando el hombre está viajando por el firmamento, puede haber una cultura como la nuestra a la que se le niegan sistemáticamente los medios, el permiso, el derecho, para estudiarlo»*

Eduardo Chillida

Nahigabe horrek hasiera batean Euskal Unibertsitatea aldarrikatzeko mugimendua irudikatuko zuen sinbolo bat sortzeko pizgarri gisa balio izan zion. Ilusio kolektibo baten pean, urte horretan Euskal Unibertsitate baten aldeko mugimendu sozial aparta hasi zen. Une zailak izan ziren, diktaduraren armiarma sareak gainetik kentzen ari baitziren oraindik. Eta hori guztia Chillidak sortutako ikur baten identitate bisualaren pean.

Una desazón que le serviría de estímulo para concebir un símbolo que, en un primer momento, representaría al movimiento de reivindicación de la Universidad Vasca. Bajo una ilusión colectiva, ese mismo año comenzó un extraordinario movimiento social en pro de una Universidad Vasca. Unos momentos complicados en lo que todavía se sacudían las telarañas de la dictadura. Y todo ello bajo la identidad visual de un símbolo creado por Chillida.






*«Euskal Unibersitatea bai, Universidad Vasca sí» hitzekin agertu zen lehen aldiz ikur hori. Karteletan eta pegatinetan asko zabaldu zen 1976 eta 1977 artean, eta gure inguruan oso ezaguna izatera iritsi zen.*

*Euskal Unibersitatea bai, 1975*
*Eduardo Chillida Ondorengotza bilduma*
*Argazkia: Eduardo Chillida Artxiboa*

*Con las palabras «Euskal Unibersitatea bai, Universidad Vasca sí» apareció por primera vez este símbolo. Fue ampliamente divulgado en carteles y pegatinas entre los años 1976 y 1977, llegando con ello a ser muy conocido en nuestro entorno.*

*Euskal Unibersitatea bai, 1975*
*Colección Sucesión Eduardo Chillida*
*Fotografía: Archivo Eduardo Chillida*







*Gure Unibertsitaterako ikurrez gain, Chillidak beste batzuk ere sortu zituen hainbat erakunderentzat. Sinbolo horien gauzatze plastikoarekin (zati esanguratsu bat baino ez dugu erakusten), artistak konpromiso altruista agertu zuen bere bizi filosofiarekin bat zetozen kausekin: ingurumenaren eta naturaren alde, pertsonen eskubideen alde, eta bere lekuko bizitzaren eta kulturaren alde. Chillida Belzunze Fundazioak nabarmendu duenez, «Chillidaren alderdi agian ezezagunenetako bat da, eta, hala ere, gizartean eragin handiena izan duenetako bat, ikusizko presentzia etengabea izan baitu».*

*Sinboloak (goitik behera):*

- *Ez Ez Ez-Ez Deba Nuclear-No Central Nuclear-Costa Nuclear No No No, 1975*
- *Amnistia-Askatasuna, 1976*
- *Jakiunde-Zientzia, Arte eta Letren Akademia, 1978*
- *Cristóbal Balenciaga Fundazioa, 1987an egina eta 2018an aurkeztua*
- *Kutxa Fundazioa, 1990*
- *Orfeón Donostiarra, 1996*
- *Museo Chillida Leku, 1997*
- *Red de Parques Nacionales, 1998*

*Aparte de los símbolos para nuestra Universidad, Chillida también creó otros símbolos de identidad para diferentes entidades. Con la materialización plástica de estos símbolos, de los cuales mostramos solo una parte significativa, el artista manifestó su compromiso altruista con causas afines a su filosofía de vida: a favor del medio ambiente y la naturaleza, de los derechos de las personas y de la vida y la cultura de su lugar. Tal y como se ha destacado desde la Fundación Chillida Belzunze «esta es una de las facetas tal vez menos conocidas de Chillida y, sin embargo, una de las que más impacto ha tenido en la sociedad debido a su constante presencia visual».*

*Símbolos (de arriba a abajo):*

- *Ez Ez Ez-Ez Deba Nuclear-No Central Nuclear-Costa Nuclear No No No, 1975*
- *Amnistía-Askatasuna, 1976*
- *Jakiunde-Zientzia, Arte eta Letren*
- *Akademia, 1978*
- *Fundación Cristóbal Balenciaga, realizado en 1987 y presentado en 2018*
- *Kutxa Fundazioa, 1990*
- *Orfeón Donostiarra, 1996*
- *Museo Chillida Leku, 1997*
- *Red de Parques Nacionales, 1998*



*Bilboko Unibertsitate zaharraren armarria, 1969an sortua hiriaren armarrian oinarrituta.*

*Escudo de la antigua Universidad de Bilbao, creado en 1969, basado en el escudo de la Villa.*

1978an, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak ezarri ondoren, Ramón Martín Mateok, jada desagertuta dagoen Bilboko Unibertsitateko azken errektoreak, unibertsitate barrutiaren handitzea islatuko zuen ikur bat izateko beharra azaldu zion Gobernu Batzordeari. Ordura arte, Unibertsitate berria Bilboko Unibertsitatearena erabiltzen ari zen. Baina berezko ikur identifikagarria sortzeko prozesua ez zen 1981 arte hasi, garai hartako errektore Gregorio Monrealek Gobernu Batzordeari dena martxan jartzea eskatu zion arte. Gobernu Batzordeak Arte Ederren Fakultateko dekano Pedro Manterolari eskatu zion ikur hori sortzeko proposamen bat egiteko. Pedro Manterolak bi aukera proposatu zituen: Eduardo Chillidari enkargatzea, lehen esan dugun bezala, Euskal Unibertsitatearen aldeko kanpainan parte hartu eta aldarrikapen ikur bat sortu baitzuen, edo lehiaketa publiko bat deitzea. 1982ko urtarrilaren 19an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen Chillidaren gain jartzea UPV/EHUren nortasun ikurra diseinatzeko ardura.

En 1978, ya establecidos los estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Ramón Martín Mateo, el último rector de la ya desaparecida Universidad de Bilbao, expuso a la Junta de Gobierno la necesidad de dotar de un símbolo que reflejara la ampliación del distrito universitario. Hasta esos momentos, la nueva Universidad estaba utilizando el referido a la Universidad de Bilbao. Pero no fue hasta 1981, cuando el entonces rector Gregorio Monreal, requirió a la Junta de Gobierno el inicio del proceso de creación de un símbolo identificador propio.
La Junta de Gobierno solicitó al decano de la Facultad de Bellas Artes, Pedro Manterola, que planteara una propuesta para la creación de dicho símbolo. Pedro Manterola planteó dos posibilidades: encargar su creación a Eduardo Chilllida, que tal y como hemos apuntado anteriormente, había participado en la campaña pro Universidad Vasca elaborando su símbolo reivindicativo, o bien convocar un concurso público. El 19 de enero de 1982, la Junta de Gobierno decidió encargar directamente a Chillida el diseño del símbolo de identidad de la UPV/EHU.

Enkargu horren aurrean, Chillidak erabaki zuen Euskal Unibertsitate bat aldarrikatzeko kanpainarako sortu zuen sinboloari berriro heltzea eta UPV/EHUri modu altruistan ematea. Gregorio Monrealek proposatuta, ikurrari *Eman ta zabal zazu* leloa gehitzea erabaki zen, «(ezagutza) sortu eta zabaldu» zentzuarekin. Leloa Jose Maria Iparragirrek XIX. mendean idatzitako «Gernikako arbola» zortzikotik atera zen: *Eman eta zabaltzazu munduban frutuba, adoratzen zaitugu arbola santuba.*
Ikur berria 1982ko apirilaren 19an aurkeztu zen. Egileak horrela azaldu zuen: «Sinbolo bat egiteko eskatu zidaten, eta hala egin nuen: zuhaitz bat. Zuhaitz bat eta haren fruitua. Hori da ideia. Eman ta zabal zazu». Kolore beltzeko zuhaitz bat, zuriune bat besarkatzen duena, artistaren obraren bereizgarri diren forma dinamiko eta konstruktiboekin, zeinetan zorroztasun geometrikoaren gainetik egituraren nukleotik bertatik abiatzen den nolabaiteko organizitate bat nagusitzen den. Zientziaren zuhaitzaren sinbolismo tradizionalarekin lotutako metafora bat.

Ante este encargo, Chillida decidió retomar el símbolo que había creado para la campaña reivindicativa de una Universidad Vasca y donarlo a la UPV/EHU de forma altruista. A propuesta de Gregorio Monreal se decidió acompañar el símbolo con el lema *Eman ta zabal zazu* en el sentido de «crea (conocimiento) y difúndelo». Este lema fue extraído de una estrofa del zortziko titulado «Gernikako Arbola», escrito en el siglo XIX por el poeta y músico popular José María Iparraguirre: *Eman eta zabaltzazu munduban frutuba, adoratzen zaitugu arbola santuba* (Árbol santo propaga tu fruto por el mundo, mientras te tributamos ferviente adoración).
El nuevo símbolo se presentó el 19 de abril de 1982. En palabras del propio autor, explicó: «Me pidieron que hiciera un símbolo, y lo hice, que es un árbol. Un árbol y su fruto. Esa es la idea. *Eman ta zabal zazu*». Un árbol en color negro, abrazando un espacio en blanco, con el planteamiento de formas dinámicas y constructivas que caracterizan a su obra, en las que el rigor geométrico es vencido por una suerte de organicidad que parte del núcleo mismo de la estructura. Una metáfora, el árbol, vinculada con el simbolismo tradicional del árbol de la Ciencia.



*Sinbolo bat egiteko eskatu zidaten, eta hala egin nuen: zuhaitz bat. Zuhaitz bat eta haren fruitua. Hori da ideia.*
Eman ta zabal zazu

*Me pidieron que hiciera un símbolo, y lo hice, que es un árbol. Un árbol y su fruto. Esa es la idea.*
Eman ta zabal zazu

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

*UPV/EHUren 1985eko Estatutuek sinboloaren esanahia eta logotipoaren forma jaso zituzten 10. artikuluan, baita euskarazko lelo bat eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzitako legenda bat ere: Euskal Herriko Unibertsitatearen armarria Zientziaren zuhaitzaren irudikapen alegorikoa da. Goialdean «Eman ta zabal zazu» goiburua du, eta, behealdean, ezkerrean, «Universidad del País Vasco» eta, eskuinean, «Euskal Herriko Unibertsitatea».*

